ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2021eko ekainaren 11, ostirala • 64 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

# GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Elkarte edo fundazioentzako laguntza deialdia, Arabako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen eremuko programa eta jarduerak garatzen laguntzeko. 2021eko ekitaldia**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2021eko maiatzaren 20an egindako bilkuran, erabaki du laguntza deialdi hau onestea eta argitaratzea. Hona hemen berau arautuko duten:

### OINARRIAK

**Lehenengoa. Deialdiaren xedea eta aplikatu beharreko araudia**

Deialdi honen xedea da Araban bizi diren eta gizarte zerbitzuen ekintzaren lehentasunezko hartzaile diren pertsonen bizi kalitatea hobetzeko programak edo jarduerak garatzen laguntzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak irabazteko xederik gabeko elkarteei edo fundazioei eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea, ekintza eremu hauetan:

1. Esku-hartze soziala eta gizarte inklusioa.
2. Dibertsitate funtzional egoeran dauden pertsonak.
3. Adingabeak eta haien familiak.
4. Landa eremuko adineko pertsonak.

Deialdi honen xede diren laguntzak emateko, kontuan edukiko da ea betetzen diren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 8/2011 Foru Dekretuan eta indarrean dagoen araudian ezarritako baldintza eta betebehar guztiak. Foru dekretu horren bidez, Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren erakunde autonomo den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez ematen dituzten dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi ziren.

**Bigarrena. Deialdiaren aurrekontua**

Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2021eko ekitaldiko aurrekontuko 1.80204.0421.481.00.04 “Elkarteen funtzionamendu gastuetarako laguntza programa” aurrekontu partidaren kredituari egotziko zaizkio, 176.000,00 euroko zenbatekoarekin.

Salbuespen gisa, adierazitako gehienezko zenbatekoaz gain, erabilgarri diren kredituen barruan, zenbateko gehigarri bat zehaztu ahal izango da. Kreditu gehigarri hori dirulaguntzetara gehitzeko, ez da beharrezkoa izango beste deialdi bat egitea. Zenbateko gehigarri hori aurrekontu kreditu berdinen konturako gainerako deialdietatik eskuratu ahal izango da, baldin eta haiek ebatzi badira haientzat hasieran aurreikusitakoa baino zenbateko txikiago batez eta partidaren gehienezko muga orokorrera arte, zeina 465.000,00 euroan ezarrita baitago 2021eko ekitaldirako.

**Hirugarrena. Erakunde onuradunak**

3.1. Irabazteko xederik gabeko elkarteak edo fundazioak izango dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta beren jarduerak deialdiaren xedearekin bat badatoz eta jarduera horiek deialdiak eta araudi hauek ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen badituzte: Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea eta Gizarte Politiken eta Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren Erakunde Autonomo den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

3.2. Honako hauek deialditik kanpo geldituko dira berariaz:

a) Estatuaren edo autonomia erkidegoaren menpe dauden erakundeak, zentroak edo zerbitzuak, bai eta aurrezki kutxen edo irabazteko asmoa duten erakundeen menpe daudenak ere.

b) AFAren beste sail edo zuzendaritza batzuekin nahiz beste erakunde publiko batzuekin zerikusia duten beste eremu edo talde batzuei atxikitako jarduerak edo programak dituzten erakundeak.

c) Beren jarduera Gasteizko udalerrira mugatzen duten elkarte edo erakundeak.

d) Aurreko ekitaldietan erreklamatu zitzaizkien dirulaguntzak itzuli ez dituzten erakundeak.

e) Eskatutako laguntzarekin egin beharreko jarduerak Arabako Lurralde Historikoaren barruan egiten ez dituzten entitate edo erakundeak.

f) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, hezkuntza erakundeak, sozietate zibilak, sindikatuak edo merkatari eta profesionalen elkarteak, oro har, bai eta horietan sartuta edo horiei atxikita dauden talde eta elkarteak ere, baldin eta beren plazen ehuneko 75 baino gehiago erakunde jakin bateko kideentzat, enplegatuentzat edo senitartekoentzat gordeta badauzkate edo kide izateko aukera mugatzen badute.

g) Eskaera aurkezteko garaian Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan erroldatuta ez dauden elkarteak edo fundazioak. Erregistro hori araututa dago Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretuan, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzen baita.

h) Kideak onartzeko prozeduran edo jardunbidean sexuan oinarrituta diskriminatzen duten elkarteak edo fundazioak, eta sexuan oinarritutako diskriminazioa egin dutelako administrazio bidean edo zigor bidean zehapena izan duten elkarteak edo fundazioak, bai eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeari jarraikiz debeku hori ezarri zaienak ere.

i) Erakunde publikoak barruan dituzten elkarteak edo fundazioak.

j) Arabako Lurralde Historikoan egoitzarik ez duten elkarteak edo fundazioak.

k) Deialdi honen helburua betetzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin lankidetza hitzarmena duten edo erakunde horrengandik dirulaguntza izendunen bat jasotzen duten erakundeak.

**Laugarrena. Deialdiaren helburua, dirulaguntza lerroak eta laguntza jaso dezaketen jarduerak**

4.1. Dirulaguntzen esleipena, Foru Aldundiak gizarte zerbitzuen jardunerako ezarritako helburuak betetzeko xedez, bideratuko da laguntza deialdi honetan ezarritako dirulaguntza lerro bakoitzean zehazten diren gizarte intereseko proiektu eta jarduerak sustatzera:

I. Esku hartze sozialeko programak eta zerbitzuak.

II. Dibertsitate funtzional egoeran dauden pertsonentzako eta haien familientzako programak eta jarduerak.

III. Babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako eta haien familientzako programak eta jarduerak.

IV. Landa eremuko adineko pertsonen gizarte sustapenera bideratutako programak eta jarduerak.

4.2. Honako helburu eta jarduera hauetarako eman ahal izango da laguntza:

## I. DIRULAGUNTZA LERROA

ESKU HARTZE SOZIALEKO PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK

1. Helburuak:

• Haien arazoen ondorioz edo haien jaioterria, arloa edo ezaugarri pertsonalak tarteko, desabantailak zein gizarteratzeko zailtasunak dituzten edota baztertuta dauden pertsonak bultzatzeko, sentsibilizatzeko, prebenitzeko, laguntzeko eta gizarteratzeko balio duten programak edo ekintzak sustatzea.

• Buruko gaixotasuna duten adingabeak dituzten familiak prestatzea eta sentsibilizatzea eta familia horiei arreta eta laguntza ematea.

• Baztertuta dauden taldeak gizarteratzea helburu duten proiektuak edo jarduerak bultzatzea eta, aldi berean, gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna sustatzea.

• Gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten emakumeen kontrako genero indarkeria prebenitzea eta esku hartzea.

2. Hauek lagundu ahalko dira diruz:

• Elkartzeko taldeak edo autolaguntzako taldeak.

• Ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, bideoforumak.

• Landa zonetan laguntasuna ematea edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen lehentasunezko hartzaileei ematea.

• Boluntarioek garatutako jarduerak, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen lehentasunezko jasotzaileei bideratutakoak, eta boluntarioak edo lagundutako pertsonak elkartzeko jarduerak

•Txapelketak, lehiaketak, erakusketak.

• Elkarteen arteko trukeak, oroitzapenezko ekitaldiak.

• Berripaperak, aldizkariak, dekalogoak, txostenak, gidaliburuak, erakundearen bideoak eta jardueren zabalkundea.

• Jolas jarduerak.

• Biltzarretan edo mintegietan parte hartzea.

• Lehentasunezkotzat jotako beste programa edo jarduera batzuk, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen katalogoan jasoak (batez ere, gizarte bazterkeria pairatzen duten pertsonentzako eguneko zerbitzuak edo zentroak eta egoitzak).

• Zeharkako gastuak.

## II. DIRULAGUNTZA LERROA

DIBERTSITATE FUNTZIONAL EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO
ETA HAIEN FAMILIENTZAKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK

1. Helburuak:

• Pertsona horiek eta haien familiak beraien inguruan gizarteratzea eta haien ongizatea sustatzea.

• Herritarren elkartasuna eta parte hartzea bultzatzea aipatutako pertsonen gizarte sustapenean.

• Laguntza sareen sorrera bultzatzen eta ahalbidetzen duten programak sustatzea.

• Baliabide komunitario arruntak, ez-espezifikoak, sustatu, horietan parte hartu eta gizarteratzea ahalbidetzen edo lehenesten duten ekintzak bultzatzea.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

• Dibertsitate funtzional egoeran dauden emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten programak eta ekintzak sustatzea, bai eta emakume horiek zenbait esparrutan gizarterako ekintzak bultzatzea, haien gizarte irudia hobetu eta ahalduntzea errazteko.

• Dibertsitate funtzional egoeran dauden emakumeen aurkako genero indarkeriari aurrea hartzea eta, halako egoeretan, esku hartzea.

2. Honako hauek izan daitezke diruz laguntzekoak:

• Elkartzeko taldeak edo autolaguntzako taldeak.

• Ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, bideoforumak.

• Landa zonetan laguntasuna ematea edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen lehentasunezko hartzaileei ematea.

• Boluntarioek garatutako jarduerak, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen lehentasunezko jasotzaileei bideratutakoak, eta boluntarioak edo lagundutako pertsonak elkartzeko jarduerak.

•Txapelketak, lehiaketak, erakusketak.

• Elkarteen arteko trukeak, oroitzapenezko ekitaldiak.

• Berripaperak, aldizkariak, dekalogoak, txostenak, gidaliburuak, erakundearen bideoak eta jardueren zabalkundea.

• Jolas jarduerak.

• Biltzarretan edo mintegietan parte hartzea.

• Lehentasunezkotzat jotako beste programa edo jarduera batzuk, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen katalogoan eta/edo pertsonen autonomia sustatu eta mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntzeko zerbitzuen katalogoan jasota daudenak.

• Zeharkako gastuak.

**III. DIRULAGUNTZA LERROA**

BABESGABETASUN EGOERAN DAUDEN ADINGABEENTZAKO ETA HAIEN FAMILIENTZAKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK

1. Helburuak:

• Adingabeen harrera edo adopziorako sustapena, sentsibilizazioa, formazioa eta laguntza.

• Adingabeen aldi baterako egonaldietarako programak.

• Haurren tratu txarra prebenitzeko sentsibilizazioa.

2. Honako hauek izan daitezke diruz laguntzekoak:

• Elkartzeko taldeak edo autolaguntzako taldeak.

• Ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, bideoforumak.

• Aldi baterako egonaldietarako programak.

• Boluntarioek garatutako jarduerak, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen lehentasunezko jasotzaileei bideratutakoak, eta boluntarioak edo lagundutako pertsonak elkartzeko jarduerak.

•Txapelketak, lehiaketak, erakusketak.

• Elkarteen arteko trukeak, oroitzapenezko ekitaldiak.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

• Berripaperak, aldizkariak, dekalogoak, txostenak, gidaliburuak, erakundearen bideoak eta jardueren zabalkundea.

• Jolas jarduerak.

• Biltzarretan edo mintegietan parte hartzea.

• Lehentasunezkotzat jotako beste programa edo jarduera batzuk, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen katalogoan jasota daudenak.

• Zeharkako gastuak.

**IV. DIRULAGUNTZA LERROA**

LANDA EREMUKO ADINEKO PERTSONEN GIZARTE SUSTAPENERA BIDERATUTAKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK

1. Helburuak:

• Adinekoen gizarte parte hartzea, ongizatea eta prestakuntza sustatzen.

• Adinekoen artean, garapen komunitarioko jarduerak bultzatzea, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasuna sustatuz.

• Emakume adindunen ahalduntzea sustatzen duten jarduerak bultzatzea.

• Adineko emakumeenganako genero indarkeriari aurrea hartzen eta, halako egoeretan, esku hartzen.

2. Honako hauek izan daitezke diruz laguntzekoak:

• Gela ibiltariak.

• Ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, bideoforumak.

• Belaunaldien arteko topaketak, adinekoen arteko topaketak.

• Elkarte trukeak.

• Jarduerak ludikoa (txangoak, txapelketak, etab.).

• Landa zonetan laguntasuna ematea edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen lehentasunezko hartzaileei ematea.

3. Honako jarduera hauek kanpo egongo dira:

• Ekipamenduak, zaharberritze lanak eta erakunde eskatzaileek gauzatutako beste inbertsio batzuk.

• Lokalak onik zaintzea.

• Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren deialdian jasotzen diren ikastaroak, jardunaldiak, batzarrak eta mintegiak antolatzea.

• AFAren beste deialdi batzuetan dirulaguntza jaso dezaketen programak edo jarduerak, aldeek batera eta espresuki baimendu ezean.

• Prestakuntzazko edukiz hornitutako programak eta/edo jarduerak, ohiko baliabide komunitarioen bidez egin ahal badira.

• Banakako saioak (psikologia, logopedia, aholkularitza juridikoa, terapia okupazionala eta abar).

• Administrazioa bera, zuzenean nahiz zeharka, jada egiten ari den programak edo jarduerak.

• Erakundeko langile lan-kontratudunen prestakuntza.

• Material ez-suntsikorra, opariak eta loteria erostea eta eskudiruzko opariak.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

• Fotokopiak edo GOFEren mantentze deialdiaren barruan diruz lagundu daitekeen beste edozein material.

• Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira.

4. Gastu diruz lagungarritzat joko dira eta, hortaz, deialdi honen bidez finantzatu ahal izango dira, diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren izaerari argi eta garbi atxikitzen zaizkionak, behar-beharrezkoak direnak eta 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko azaroaren 30era bitartean egiten direnak.

5. Dirulaguntzarako onartzen den aurrekontuaren ehuneko 100 azpikontratatu daiteke, baldin eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren, 27. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira. 27.7.d) artikuluan xedatutakoaren araberako loturarik badago, baimena eskatu beharko da azpikontratatzeko, organo emaileari zuzendutako idazki bidez. Deialdi hau argitaratu aurretik azpikontratatu bada, onartu egingo da baimen eskaera laguntza eskaerarekin batera aurkeztea. Horrek, ordea, ez du zehazten erantzuna halakoa edo bestelakoa izango den.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea**

5.1 Deialdi honetan araututako laguntzetara aurkezteko eskaerak eta eskatu den dokumentazioa hemen aurkeztu beharko dira:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistro Orokorrean.

- Administrazio publikoen administrazio prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak jasotzen dituen gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, ondoko hauek eskaerak nahitaez telematikoki aurkeztu behar dituzte, egoitza elektronikoaren bidez eskura daitekeen berariazko izapidea eginda (https://egoitza.araba.eus/eu/-/pr-ayudas-dirigidas-a-asociaciones-o-fundaciones-para-contribuir-al-desarrollo-de-programas-y-actividades-enmarcadas-en-el-%C3%A1mbito-de-intervenci%C3%B3n-social) pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzen dutenak.

Eskaera elektronikoki aurkeztea nahitaezkoa izanik, aurrez aurre aurkezten bada edo horretarako prestatutako prozedura elektronikoa erabiltzen ez bada, egin beharreko zuzenketa egiteko eskatuko da, eta ohartaraziko zaio errekerimenduari hamar eguneko epean erantzuten ez bazaio eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotakoaren arabera.

Eskaerekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eskaeretan jasotako informazioa eta dokumentazioa benetakoa dela adierazteko.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizartegintza Arloak argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie, deialdi honen esparruan, dirulaguntzaren bat eskatu nahi duten erakundeei.

Kontsultak bide hauek erabiliz egin daitezke:

San Prudentzio kalea, 30, sotoa.

Telefonoa: 945151015

Faxa: 945121074

Edo posta elektronikoko helbide hauetan: mdomingo@araba.eus.

lfbsayudasins@araba.eus.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

5.2. Eskatzen den dirulaguntza lerro bakoitzeko eskaera bana aurkeztuko da.

5.3 Erakunde eskatzaileek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean aurkez ditzakete laguntza eskaera hori eta erantsitako dokumentazioa. Halaber, laguntza eskaeraren ondoriozko jardunetan eta prozedura guztian zehar, erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak 6.1 artikuluan xedatzen duen bezalaxe.

**Seigarrena. Aurkezteko epea**

6.1 Laguntza eskaerak aurkezteko, 15 egun baliodun izango dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6.2. Epe barruan aurkeztutako eskaerak ebatzi ondoren, eta aurrekontuetan horretarako nahikoa kreditu badago, salbuespen gisa, 6.1 paragrafoak adierazitako epetik kanpo ere onartuko dira eskaerak, baina, inola ere ez, 2020ko azaroaren 30a baino geroago. Horrelakoetan, eskatutako laguntzen beharrak ezarritako epe arruntaren azken eguna igaro ondoren sortu direla egiaztatu beharko da, eta eskaerak indarrean dagoen arautegiaren arabera justifikatzeko arrazoi frogatuak daudela.

**Zazpigarrena. Aurkeztu beharreko agiriak**

Bosgarren oinarrian adierazitako eskaerarekin batera, beste dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

7.1. I. eranskina: Eskaera orria, deialdi honi atxikitako agiriaren arabera onespena eman diezaioten, erakundearen ordezkariak edo ahalmen nahikoa duenak izenpetua, datu hauek jasotzen dituena, besteak beste:

• Elkartearen edo fundazioaren izena eta datuak. Nortzuk diren zuzendaritza batzordeko edo patronatuko kideak, eta zenbat pertsona dituen bazkide, boluntario, eta abar, betiere sexuaren arabera xehakatuz. Erakundearen legezko eratze data.

• Helburu bera betetzea xede duten beste sarrera edo dirulaguntza batzuk.

• Hala badagokio, azpikontratatzeko baimen eskaera, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak bere 27. artikuluko 7.d) artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

7.2. Programako jarduera bakoitzaren memoria teknikoa, honako hauek zehaztuta:

• Diruz lagungarria den kontzeptu bakoitzaren aurrekontua eta eskatutako zenbatekoa, hamaikagarren oinarriko B atalaren arabera.

• Jardueraren deskribapena eta antzemandako gizarte beharrei erantzuteko egiten duten ekarpenaren justifikazioa.

• Jarduera garatu ahal izateko helburuak, ekintzak eta metodologia, orduak, kilometroak eta jardueraren onuradunen kopurua zenbatetsita. Gastuen eta sarreren aurreikuspena ere jaso beharko da.

• Jarraipen prozesua eta ebaluazio adierazleak.

• Materialak, giza eta teknologia baliabideak.

• Genero ikuspegiaren txertaketari eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapenari buruzko azalpena.

• Euskararen bultzadari eta erabiltzeko esparruak handitzeari buruzko azalpena.

• Jarduera burutzean erakundearen beraren langileak erabiltzekotan: langile horien zerrenda eta beren kostuaren aurrekontua. Gainera, lanpostua edo lanbide-kategoria, jarduerari eskainitako dedikazioa eta haren urteko kostua azaldu beharko dira.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

7.3. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak: dirulaguntzak eskatzen dituzten erakundeek egunean izan beharko dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz eskatuko dio Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari ziurtagiria, eskaera egiten duen erakundea Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko, bai eta foru ogasunari ere, zerga betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko; behar adina aldiz egin ahal izango die eskaera GOFEk aipatutako erakundeei, salbu eta, dirulaguntza 800,00 euro baino txikiagoa izanik, erakundeak hori egiaztatzeko betebeharretik salbuetsita dauden kasuetan, betiere 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera. Erakunde eskatzailea aurreko agiriak direla-eta GOFEk egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera, eta aurkeztu ere eskatzen zaion beste bider.

7.4. BEZetik salbuetsita egotea: 15.4 oinarriari dagokionez, BEZaren salbuespena egiaztatuko da zerga administrazio eskudunak eman beharreko salbuespen egiaztagiri bidez, baldin eta aldez aurretik dagoeneko aurkeztu ez bada. GOFEk dagokion zerga administrazioan egiaztatuko du salbueste hori badela. Bestela, salbuespena erantzukizunpeko adierazpen bidez ere egiaztatu ahalko da, betiere honako hau adieraziz: erakunde eskatzaileak ez duela irabazteko asmorik, lortutako etekinak salbuetsitakoaren izaera bereko jarduerak aurrera eramateko erabiltzen direla eta lehendakari, elkarteburu edo ordezkariaren karguak doakoak eta ordainik gabekoak direla. Eskaera aurkezteak GOFEri baimena ematen dio adierazpen hori egiaztatzeko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan. Erakunde eskatzailea aurreko agiriak direla-eta GOFEk egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera.

**Zortzigarrena. Balioespen irizpideak**

Hona hemen eskaerak balioesteko irizpideak:

a) Programaren edo jardueraren egokitasuna eta kalitate teknikoa: gehienez, 60 puntu. Balioetsiko da jarduera gizarte beharrizanen araberakoa dela justifikatzea, bai eta esku hartzearen diseinua eta gauzatze proposamena ere (helburuak, ekintzak, metodologia, kuantifikazioa, jarraipena, ebaluazioa eta erabilitako baliabideak).

a.1. Justifikazioa, jarduerak edo programak GOFEren xede diren gizarte beharrei egiten dien ekarpenari buruzkoa: gehienez, 30 puntu.

| | |
|---|---|
| Behar bezala justifikatzen du | 30 puntu |
| Hein batean justifikatzen du | 15 puntu |
| Ez du justifikatzen | 0 puntu |

Diruz laguntzeko modukoa izateko, jarduerak 15 puntu izan behar ditu gutxienez a.1 apartatuan.

a.2. Jardueraren xedeak, ekintzak, metodologia eta kuantifikazioa: gehienez, 20 puntu.

| | |
|---|---|
| Gizarte beharrei egokitzen zaizkien helburuak zehazten ditu | 5 puntu |
| Helburuak betetzeko ekintza zehatzak deskribatzen ditu | 5 puntu |
| Helburuekin bat datorren metodologia proposatzen du | 5 puntu |
| Modu proportzionatu eta egiazkoan zenbatesten ditu aurreikusitako orduak, kilometroak, jardueraren onuradunen kopurua eta aurrekontua | 5 puntu |

a.3. Proposatutako jarraipen eta ebaluazio prozedura: gehienez, 5 puntu.

| | |
|---|---|
| Jarraipena egiteko era eta ebaluazio adierazle egokiak proposatzen ditu | 5 puntu |
| Jarraipena egiteko era eta ebaluazio adierazle desegokiak proposatzen ditu | 0 puntu |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

a.4. Materialak, giza baliabideak, bitarteko teknologikoak: gehienez ere, 5 puntu.

| | |
|---|---|
| Jarduerarako material eta baliabide egokien erabilera azaltzen da | 5 puntu |
| Material eta/edo baliabide desegokiak azaltzen dira | 0 puntu |

b) Programa zenbat pertsonarentzat den eta horiek jardueretan/programetan zenbateraino parte hartuko duten: gehienez, 10 puntu. Balioetsi egingo da erakundeak bazkide kopuru nabarmena izatea, eta lehentasuna emango zaie jende kopuru handi batengana heltzea aurreikusita duten ekintzei.

b.1. Erakundeko kideak: gehienez 5 puntu.

— Elkarteen kasuan, kide kopurua:

| | |
|---|---|
| 50 pertsona baino gehiago | 5 puntu |
| 20 eta 50 pertsona bitartean | 3 puntu |
| 20 pertsona baino gutxiago | 0 puntu |

— Fundazioen kasuan, patronatuko kideen kopurua:

| | |
|---|---|
| 10 pertsona baino gehiago | 5 puntu |
| 3 eta 10 pertsona bitartean | 3 puntu |
| 3 pertsona baino gutxiago | 0 puntu |

b.2. Ekintzarako bertaratze aurreikuspena: Gehienez, 5 puntu.

| | |
|---|---|
| 30 pertsona baino gehiago | 5 puntu |
| 10 eta 30 pertsona bitartean | 3 puntu |
| 10 pertsona baino gutxiago | 0 puntu |
| "Biltzarretara edo mintegietara joatea" jardueraren kasuan, atal honetan 5 puntu emango dira, bertaratutako pertsonen kopurua edozein dela ere | |

c) Diru laguntza jaso den azken ekitaldian diruz lagundutako jardueraren frogagiriak. Gehienez 20 puntu. Dirulaguntza jaso den azken ekitaldian aurkeztutako frogagiriak balioetsiko dira, haren ondoren emandako azken zenbatekoa kontuan edukiz.

| | |
|---|---|
| Dirulaguntza jaso den azken ekitaldian emandako azkeneko zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 90etik ehuneko 100era bitarteko tartean badago, edo dirulaguntzarik jaso ez bada, edo justifikatutako arrazoiengatik ezin izan bada egin diruz lagundutako jarduera, eta dirulaguntzari uko egin bazaio abenduaren 15a baino lehen: | 20 puntu |
| Baldin eta azkeneko ekitaldi diruz lagunduan emandako amaierako zenbatekoa hasierako diru zenbatekoaren ehuneko 75etik ehuneko 89ra bitarteko tartean badago: | 10 puntu |
| Baldin eta azkeneko ekitaldi diruz lagunduan emandako amaierako zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 75etik beherakoa bada: | 0 puntu |

d) Genero ikuspegiaren txertaketari eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapenari buruzko azalpena. Gehienez, 5 puntu.

— Xede den gizatalde guztiaren inguruabarrak, beharrizanak eta berariazko arazoak ikusarazi, aintzat hartu eta identifikatzen ditu, eta gizonen eta emakumeen egoera desberdinei erantzuten die.

— Emakumeek gizarteari egiten dizkioten ekarpenen balioa nabarmentzen du (herriko edo erakundeko emakume nabarmenei aitorpena egiten die; arlo bateko eta besteko estereotipoak hausten dituzten emakumeak ikusarazten ditu…).

— Neurriak proposatzen ditu emakumeek eta gizonek parte har dezaten: (ordutegien erabilerraztasuna, adingabeak zaintzeko zerbitzua edo mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntzeko begiraleak…).

— Hizkuntza inklusiboa erabiltzen du aurkeztutako agiri guztietan.

— Sexu aldagaia sartzen da programazioetan, inkestetan, datu bilketetan, txostenetan, inprimakietan eta memorietan.

| | |
|---|---|
| Gutxienez, aurreko baldintzetatik bi betetzen ditu | 5 puntu |
| Aurreko baldintzetatik bakarra betetzen du edo bat ere ez du betetzen | 0 puntu |

e) Euskararen bultzada eta hizkuntza erabiltzeko esparruak handitzea: Gehienez, 5 puntu.

| | |
|---|---|
| Euskara erabiltzen du komunikazioetan, aurkezpenetan eta/edo inprimatutako beste euskarri batzuetan | 5 puntu |
| Ez du erabiltzen | 0 puntu |

**Bederatzigarrena. Dirulaguntza ukatzeko arrazoiak**

a) Deialdi honen edozein oinarri ez betetzea edo Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren erakunde autonomoa den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) norgehiagoka bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak ez betetzea.

b) Hamabigarren oinarriak ezarritakoari jarraiki, proiektuak edo jarduerak gutxienez 51 puntu ez lortzea.

c) Eskatutako kontzeptua ez dator bat laugarren oinarriaren lehenengo apartatuan ezarritako xedearekin edo eskaera aurkeztu den dirulaguntza lerroaren helburuekin, zeinak laugarren oinarriaren bigarren apartatuan ezarrita baitaude.

d) Deialditik kanpo utzitako kontzeptu, programa edo jarduera da, laugarren oinarriaren hirugarren atalak ezarritakoari jarraiki.

e) a.1 balioespen irizpide honen balioespena ez da iritsi gutxienez 15 puntura.

**Hamargarrena. Lehentasun multzoak eta diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa entitateko eta dirulaguntza lerroko**

1 lehentasun multzoa:

| DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK | GEHIENEKO ZENBATEKOA ENTITATEKO ETA DIRULAGUNTZA LERROKO |
|---|---|
| 1.1 Elkartze edo autolaguntza taldeak | 5.500,00 euro |
| 1.2 Ikastaroak eta lantegiak. | 4.500,00 euro. |
| 1.3 Hitzaldiak, bideoforumak | 1.300,00 euro |
| 1.4 Lagun egitea landa eremuko pertsonei edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen eta aldi baterako egonaldien programetako lehentasunezko hartzaileei | 8.000,00 euro |
| 1.5. Boluntarioek egindako jarduerak, bigarren arretarako gizarte zerbitzuen lehentasunezko pertsonei zuzenduak | 8.000,00 euro |
| 1.6 Lehentasunezkotzat jotako beste programa edo jarduera batzuk, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen katalogoan eta/edo pertsonen autonomia sustatu eta mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntzeko zerbitzuen katalogoan jasota daudenak. | 17.200,00 euro |
| 1.7 Zeharkako gastuak | Diruz laguntzeko gehieneko zenbatekoaren ehuneko 8raino, 1. lehentasun multzoko jardueretan |

2 lehentasun multzoa:

| | |
|---|---|
| 2.1. Lehiaketak, erakusketak | 1.800,00 euro |
| 2.2 Ikasgela ibiltariak | 3.000,00 euro |

3 lehentasun multzoa:

| | |
|---|---|
| 3.1. Boluntarioen topaketak | 3.000,00 euro |
| 3.2. Nazioarteko edo oroitzapenezko egunak | 4.000,00 euro |

4 lehentasun multzoa:

| | |
|---|---|
| Berripaperak, aldizkariak, dekalogoak, txostenak, gidaliburuak, erakundearen bideoak | 3.600,00 euro |

5 lehentasun multzoa:

| | |
|---|---|
| 5.1 Elkarteen arteko trukea edo Ate irekiko eguna | 1.000,00 euro |
| 5.2 Lagundutako pertsonen edo bazkideen topaketak edo ospakizunak | 3.000,00 euro |
| 5.3 Belaunaldien arteko topaketak | 1.000,00 euro |

6 lehentasun multzoa:

| | |
|---|---|
| Zabalkundea | 2.100,00 euro |

7 lehentasun multzoa:

| | |
|---|---|
| Jarduera ludikoak (txangoak, txapelketak, etab.) | 1.500,00 euro |

8 lehentasun multzoa:

| | |
|---|---|
| Biltzarretan, mintegietan… parte hartzea | 360,00 euro |

**Hamaikagarrena. Jarduerengatiko mugak eta diruz lagun daitezkeen gastuak**

A) Diruz lagundu daitezkeen mugak kontzeptuaren arabera:

1. Joan-etorriak/garraioa:

1.1 Jolas jarduеretarako joan-etorriak: 375,00 euro autobuseko gehienez, urtean txango bakarra.

1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak: gehienez ere, 1.500,00 euro programa edo jarduera bakoitzeko (norberaren autoa erabiliz gero, gehienezko kilometro saria: 0,30 euro kilometroko).

Boluntarioek egindako jardueretan baino ez dira kontuan hartuko Gasteiz barruan egindako joan-etorriak.

Hauek dira Gasteiztik Arabako landa eremuko herrietarako diruz lagundu daitezkeen gehieneko distantziak: Oion: 80 km, Guardia: 64 km, Bilar: 70 km, Eltziego: 69 km, Lantziego: 73 km, Samaniego: 55 km, Leza: 60 km, Gatzaga Buradon: 38 km, Iekora: 66 km, Kripan: 74 km, Agurain:30 km, Dulantzi: 19 km, Araia: 41 km, Laudio: 50 km, Amurrio: 42,9 km, Artziniega: 57 km, Murgia: 20 km, Langraiz Oka: 15 km, Pobes: 22 km, Espejo: 36 km, Zuhatzu Kuartango: 26 km, Gesaltza Añana: 30 km, Uribarri Gaubea: 42 km, Rivabellosa: 30 km, Santikurutze Kanpezu: 39 km, Maeztu: 27 km.

Beste herri batzuetarako, edo landa eremuko herrien arteko joan-etorrietarako, http://maps.google web tresna erabiliko da, biderik laburrena hartuz.

Joan-etorri bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gehieneko distantzia 115 km da.

1.3 Diruz lagundutako jardueretarako materialak garraiatzea: 500,00 euro.

1.4 Ikasgela ibiltarien garraioa: onartutako aurrekontuaren ehuneko 50,00 arte.

2. Janari-edariak/dietak diruz lagundutako jardueretan:

2.1 Bazkaria edo lunch-a lagundutako pertsona edo bazkideekiko elkartze edo ekitaldi ludikoetan. 5,00 euro pertsonako eta gehienez ere 600,00 euro entitateko.

2.2 Langileen edo erabiltzaileen janari-edariak beste programa batzuetan: gehienez 5,00 euro bazkariko eta 15,00 euro pertsonako/eguneko.

3. Langileak:

3.1 Bi ordura arteko hitzaldi edo antzeko topaketen ordainsaria: gehienez ere 120,00 euro ekitaldiko, eta gehienez ere 720,00 euro entitateko.

3.2 Elkartzeko taldeak edo autolaguntzako taldeak: gehienez ere 35,00 euro orduko, eta 4.620,00 euro entitateko.

3.3 Urtean zehar modu kontzentratuan edo aldizka egindako ikastaro edo tailerren ordainsariak:

— Ludikoak: gehienez ere 25,00 euro orduko eta 1.000,00 euro entitateko.

— Gainerako ikastaroak/tailerrak: gehienez ere 35,00 euro orduko eta 3.000,00 euro entitateko.

3.4 Boluntarioei prestakuntza emateko ordainsaria: gehienez ere 35,00 euro orduko eta 600,00 ordu erakundeko.

3.5 Adingabeak zaintzeko zerbitzuaren edo mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntzeko begiraleen ordainsaria (diruz lagundutako jardueretan): gehienez ere 15,00 euro orduko.

Aurreko 3.1etik 3.5era bitarteko kasu guztietan, ez dira diruz lagunduko hizlari nagusiekin zerikusirik ez duten beste profesional edo boluntario batzuek egindako koordinazio, moderazio edo aurkezpen lanak.

3.6 Bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen katalogoan eta/edo autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak artatzeko zerbitzuen katalogoan sartutako eta lehentasunezkotzat jotako programa edo jardueretako beste ordainsari batzuk: gehienez ere 16.361,00 euro, onartutako aurrekontuaren arabera.

Aurreko kasuetan, diruz lagundu daitekeen jarduera erakundeko langileek egiten badute, esku hartze sozialeko hitzarmen kolektiboan beren lanbide kategoriarako ezarritako soldatek mugatuko dute diruz lagun daitekeen gehieneko aurrekontua:

3 ordu baino gutxiagoko jardueretan, zuzeneko lanean emandako orduez gain, denboraren ehuneko 100 gehienez ere.

10 ordura arteko jardueretan, zuzeneko lanean emandako orduez gain, denboraren ehuneko 75 gehienez ere.

30 ordura arteko jardueretan, zuzeneko lanean emandako orduez gain, denboraren ehuneko 50 gehienez ere.

30 ordutik gorako jardueretan, zuzeneko lanean emandako orduez gain, denboraren ehuneko 25 gehienez ere.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4. Materialak: gehienez ere 720,00 euro erakunde bakoitzeko:

4.1 Hitzaldietarako: gehienez ere 20,00 euro hitzaldiko eta 120,00 euro erakundeko.

4.2 Talde, lantegi eta beste jarduera batzuetarako: gehienez ere 200,00 euro jarduerako, eta 600,00 euro erakundeko (sarien eta trofeoen kasuan, 100,00 euro jarduerako).

Material gastuei dagokienez, ez da diruz lagunduko erakundearen material suntsikor edo bulego material orokorra; jarduera egiteko erabiltzen direnak bakarrik lagunduko dira diruz, eta eskaeraren memorian zehaztu beharko dira.

5. Boluntarioen aseguruak: gehienez ere 150,00 euro.

6. Zabalkundea:

6.1 Liburuxkak, kartelak, web orriak: gehienez ere 900,00 euro erakundeko:

6.1.1 Liburuxkak eta kartelak: gehienez ere 150,00 euro jarduerako (jarduera bakoitzeko kostuen banakapena zehaztu beharko da).

6.1.2 Web orria sortzea: kanpoko zerbitzuetan, gehienez ere onartutako aurrekontuaren ehuneko 75; guztira 600,00 euro, webgunea berria bada, eta 400,00 euro, lehendik dagoena moldatzen bada (aldaketa egiteko beharrizanaren justifikazioa aurkeztu beharko da).

6.1.3 Web orrian datuak sartzea: kanpoko zerbitzuak onartutako aurrekontuaren ehuneko 50; gehienez ere 300,00 euro.

6.2 Hedabideetako publizitatea eta beste zabalkunde eta banaketa jarduera batzuk: gehienez ere 400,00 euro jarduerako.

Liburuxketan, gutunetan eta publizitatean egindako gastua diruz lagundu ahal izango da, baldin eta diruz lagundutako jarduerei buruzkoa bada.

7. Ikuskizunak (antzerkia, musika, pailazoak…): gehienez ere 300,00 euro, eta bat erakundeko.

8. Berripaperak, aldizkariak, dekalogoak, txostenak, gidaliburuak, erakundearen bideoak: euskarriak prestatu, inprimatu, banatu edo bidaltzeko kanpoko zerbitzuetan, gehienez ere 1.800,00 euro jarduerako.

9. Biltzar eta mintegietan parte hartzea (garraioa, dieta eta izena ematea): gehienez ere 30,00 euro pertsona eta eguneko.

10. Zeharkako gastuak: 1 lehentasun multzoko jardueretan diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontuaren ehuneko 8 gehienez, baldin eta beste deialdi, hitzarmen edo dirulaguntza izendunetan ez bada mantentzeko dirulaguntzarik eman.

11. Aldi baterako egonaldietan dauden adingabeak: gehienez ere 140,00 euro adingabeko.

12. Diruz lagun daitezkeen beste gastu batzuk: onartutako gehieneko aurrekontuaren ehuneko 100 gehienez eta 2.000,00 euro jarduerako.

12.1 Aretoak, aterpetxeak eta espazio publikoak alokatzea: 500,00 euro gehienez.

12.2 Materialaren alokairua (karpak, mahai informatiboak): 500,00 euro gehienez.

12.3 Materiala muntatzea eta desmuntatzea: 500,00 euro gehienez.

12.4 Beste batzuk: 2.000,00 euro gehienez.

Programa eta/edo jarduera bati dagokionez, diruz lagundu daitezkeen mugen aplikazioak zehaztuko du diruz lagungarria den gehieneko aurrekontua.

Jarduераren hedapena lurraldez gaindikoa denean, diruz lagungarria den gehieneko aurrekontua kalkulatzeko, Arabako hedadurari dagokion ehunekoa aplikatuko da.

Laguntzen eraginkortasuna bermatzearren, eta jarduerek dirulaguntza jaso ahal izateko, jarduera bakoitzean diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontuak, gutxienez, 50,00 eurokoa izan behar du.

B) Jarduketa bakoitzean diruz lagundu daitezkeen gastuak:

| |
|---|
| 1.1 Elkartzeko taldeak edo autolaguntzako taldeak<br>1.1.1 Garraioa:<br>1.1.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>1.1.3 Langileak<br>1.1.4 Materialak:<br>1.1.4.2 Jarduerarako materialak<br>1.1.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 1.2 Ikastaroak eta/edo tailerrak<br>1.2.1 Garraioa:<br>1.2.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>1.2.3 Langileak<br>1.2.4 Materialak:<br>1.2.4.2 Jarduera gauzatzeko materialak<br>1.2.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 1.3 Hitzaldiak, bideoforumak<br>1.3.1 Garraioa:<br>1.3.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>1.3.3 Langileak<br>1.3.4 Materialak:<br>1.3.4.1 Hitzaldiak emateko materialak<br>1.3.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 1.4 Lagun egitea landa eremuko pertsonei edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen eta aldi baterako egonaldien programetako lehentasunezko hartzaileei<br>1.4.1 Garraioa:<br>1.4.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>1.4.2 Janari-edariak/dietak:<br>1.4.2.2 Janari-edariak beste programa batzuetan<br>1.4.3 Langileak<br>1.4.4 Materialak:<br>1.4.4.2 Jarduera gauzatzeko materialak<br>1.4.5 Boluntarioen asegurua<br>1.4.11 Aldi baterako egonaldiak<br>1.4.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 1.5 Boluntarioek egindako jarduerak, bigarren arretarako gizarte zerbitzuen lehentasunezko pertsonei zuzenduak<br>1.5.1 Garraioa:<br>1.5.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>1.5.2 Janari-edariak/dietak:<br>1.5.2.2 Janari-edariak beste programa batzuetan<br>1.5.3 Langileak<br>1.5.4 Materialak:<br>1.5.4.2 Jarduerarako materialak<br>1.5.5 Boluntarioen asegurua<br>1.5.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 1.6 Lehentasunezkotzat jotako beste programa edo jarduera batzuk, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen katalogoan eta/edo pertsonen autonomia sustatu eta mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntzeko zerbitzuen katalogoan jasota daudenak.<br>1.6.1 Garraioa:<br>1.6.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>1.6.1.3. Materialak garraiatzea<br>1.6.2 Janari-edariak/dietak:<br>1.6.2.2 Janari-edariak beste programa batzuetan<br>1.6.3 Langileak<br>1.6.4 Materialak:<br>1.6.4.2 Jarduerarako materialak<br>1.6.5 Boluntarioen asegurua<br>1.6.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 1.7 Zeharkako gastuak |

| |
|---|
| 2.1. Lehiaketak, erakusketak<br>2.1.1. Garraioa:<br>2.1.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>2.1.1.3. Materialak garraiatzea<br>2.1.3. Langileak<br>2.1.4 Materialak:<br>2.1.4.2 Jarduerarako materialak<br>2. 1.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 2.2 Ikasgela ibiltariak:<br>2.2.1 Garraioa:<br>2.2.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak |
| 3.1. Boluntarioen topaketak<br>3.1.1. Garraioa:<br>3.1.1.1 Jolas jardueretan parte hartzeko<br>3.1.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>3.1.1.3. Materialak garraiatzea<br>3.1.2 Janari-edariak/dietak:<br>3.1.2.1 Otordua edo luncha<br>3.1.2.2 Janari-edariak beste programa batzuetan<br>3.1.3 Langileak<br>3.1.4 Materialak:<br>3.1.4.2 Topaketarako materialak<br>3.1.5 Boluntarioen asegurua<br>3.1.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 3.2. Oroitzapenezko egunak<br>3.2.1. Garraioa:<br>3.2.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>3.2.1.3. Materialak garraiatzea<br>3.2.2 Janari-edariak/dietak:<br>3.2.2.1 Otordua edo luncha<br>3.2.2.2 Janari-edariak beste programa batzuetan<br>3.2.3 Langileak<br>3.2.4 Materialak:<br>3.2.4.2 Jarduerarako materialak<br>3.2.7 Ikuskizunak (antzerkia, musika, pailazoak…)<br>3.2.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 4. Berripaperak, aldizkariak, dekalogoak, txostenak, gidaliburuak, erakundearen bideoak<br>4.1 Garraioa<br>4.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>4.8 Prestaketa, inprimaketa, banaketa, bidalketa<br>4.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 5.1 Elkarteen arteko trukea edo ate irekiko eguna<br>5.1.1. Garraioa:<br>5.1.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>5.1.2 Janari-edariak/dietak:<br>5.1.2.1 Otordua edo luncha<br>5.1.3 Langileak<br>5.1.4 Materialak:<br>5.1.4.2 Jarduerarako materialak<br>5.1.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 5.2 Lagundutako pertsonen edo bazkideen topaketak edo ospakizunak<br>5.2.1. Garraioa:<br>5.2.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>5.2.1.3. Materialak garraiatzea<br>5.2.2 Janari-edariak/dietak:<br>5.2.2.1 Otordua edo luncha<br>5.2.3 Langileak<br>5.2.4 Materialak:<br>5.2.4.2 Jarduerarako materialak<br>5.2.5 Boluntarioen asegurua<br>5.2.7 Ikuskizunak (antzerkia, musika, pailazoak…)<br>5.2.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| |
|---|
| 5.3 Belaunaldien arteko topaketak<br>5.3.1. Garraioa:<br>5.3.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>5.3.2 Janari-edariak:<br>5.3.2.1 Otordua edo luncha<br>5.3.3 Langileak<br>5.3.4 Materialak:<br>5.3.4.2 Jarduerarako materialak<br>5.3.5 Boluntarioen asegurua<br>5.3.7 Ikuskizunak (antzerkia, musika, pailazoak…) |
| 6. Zabalkundea<br>6.1. Garraioa:<br>6.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>6.6 Zabalkundea:<br>6.6.1 Liburuxkak, kartelak, web orriak<br>6.6.1.1 Liburuxkak eta kartelak<br>6.6.1.2 Webgunea prestatzea<br>6.6.1.3 Webgunean datuak sartzea<br>6.6.2 Banaketa, bidalketa, publizitatea hedabideetan<br>6.6.3 Beste zabalkunde jarduera batzuk |
| 7. Beste jarduera ludiko batzuk (txangoak, txapelketak…)<br>7.1 Garraioa:<br>7.1.1. Jolas jardueretarako joan-etorriak<br>7.4 Materialak:<br>7.4.2 Jarduerarako materialak<br>7.12 Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk |
| 8. Biltzarretan, mintegietan… parte hartzea<br>8.1. Garraioa:<br>8.1.2 Jolas jarduerak ez direnetan parte hartzeko edo halakoak egiteko joan-etorriak<br>8.2 Janari-edariak/dietak:<br>8.2.2 Janari-edariak beste programa batzuetan<br>8.9 Biltzarretan, mintegietan… izena emateko gastuak |

BEZ Balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa diruz lagungarria izango da erakundeak zenbateko hori berreskuratzerik ez badu.

**Hamabigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Zortzigarren oinarriaren irizpideak aplikatuta lortzen diren puntu guztiak batuz gero, lortuko den kopuruari dirulaguntzetarako gehieneko ehunekoa lotuko zaio, honako taula honen arabera:

| PUNTUAK | DIRULAGUNTZA GEHIENEZ |
|---|---|
| 50 punturaino | ehuneko 0 |
| 51 eta 59 puntu bitartean | ehuneko 60 |
| 60 eta 69 puntu bitartean | ehuneko 70 |
| 70 eta 79 puntu bitartean | ehuneko 80 |
| 80 eta 89 puntu bitartean | ehuneko 90 |
| 89 puntu baino gehiago | ehuneko 100 |

Hamargarren eta hamaikagarren oinarria aplikatu eta gero diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuak lortuko direnez, aurrekontu horietan aplikatutako ehuneko horiek zehaztuko dute dirulaguntza zenbat izango den.

Erabilgarri dagoen aurrekontua agortzen duen azken multzoari dagozkion esleipenak egiteko, heinean banatuko da eskura dagoen geldikina, kalkulatu den hasierako dirulaguntzaren arabera. Hortaz, ez dira diruz lagungarriak izango aipatu den azken multzoaren honako lehentasun multzo hauei lotutako jarduerak.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**Hamahirugarrena. Deialdiaren instrukzioa eta ebazpena**

13.1. Epe barruan eta dagokion eran aurkeztutako eskaerei dagokienez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatuko du ea eskaera horiek laguntza jasotzeko eskatzen diren betebehar eta baldintza guztiak betetzen dituzten. Horrela ez bada, eskaera aurkeztu duenak hamar egun baliodun izango ditu eskatzen diren datuak eta agiriak aurkezteko. Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, eskaerari uko egiten diola esan nahiko du (eta horretarako ebazpena emango da aldez aurretik), bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoarekin.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak txostenak eska diezazkieke egoki deritzen erakundeei, eskatutako dirulaguntzei buruz zein eskaera egin duen erakundeari buruz; orobat, eskaera egin duen erakundeari espedientea osatzeko eta emandako datuak egiaztatzeko beharrezko izan litezkeen datuak, agiriak edo argibideak ere eska diezazkioke.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoa da prozedura agindu eta bideratzeko eskumena duen organoa eta hark txosten teknikoa egingo du, eta bertan dirulaguntzaren xede diren jarduerak zenbateraino egokitzen zaizkien deialdiaren helburuei jasoko du.

13.2. Zuzendariordetza Teknikoak, Arloko Programen koordinatzaileak eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eskaerak balioesteko batzordea osatuko dute.

Arloko teknikari adituek egindako txostenak aztertu ondoren, eta behin kreditu erabilgarria zein den kontuan hartu eta gero, aipatutako batzordeak ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek dirulaguntza emango zaien erakunde eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa jaso beharko ditu, baita ukatzeko proposatzen diren eskaerak eta horretarako arrazoiak ere, eta, orobat, esleitu ez diren kasuak, dela atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo erantzun ez zaien eskaeretan gerora sortu den ezintasun materialarengatik.

13.3. Ez da entzunaldiko izapiderik egingo, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko ebazpena hartzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 82.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

13.4. Ebazpenak behar bezala arrazoituta egon beharko du eta dirulaguntza bidezkoa den edo ez adieraziko du, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzak emango du, hala agintzen baitu Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko arautegiak 25. artikuluan. Horretarako, hiru hilabete izango dira gehienez, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Era berean, ebazpenak zehaztuko du zein den aintzat hartutako kontzeptu bakoitzeko diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoa. Eskatzaileei ebazpenaren berri emango zaie, eta horren aurka aurkez ditzaketen errekurtsoak adieraziko dira.

Ebazpena hartzeko epea igaro eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat emango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 23.5 artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorriz. Hala ere, horrek ez du kenduko ebazpena hartzeko legezko eginbeharra.

13.5. Deialdi honetako laguntzak jasotzeko ezarri diren betekizun guztiak betetzeak ez dakar, berez eta besterik gabe, laguntza eskuratzeko eskubidea.

Deialdi baten babespean dirulaguntza emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jarduketetarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

13.6. Ebazpenaren aurka errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak urriaren 1eko 39/2015 Legeak 121 – 126 bitarteko artikuluetan xedatzen duenaren arabera.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

13.7. Honako deialdi hau ebatzi eta gero, dirulaguntza jasotako erakundeek, salbuespenezko izaeraz, emakidaren erabakiari buruzko aldaketak proposatu ahal izango dituzte, diruz lagundutako jardueraren garapena aldarazten edo zailtzen duten inguruabarrak agertzen badira; nolanahi ere, inguruabar horiek ezin dute ekarri emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea.

Horretarako, erakunde eskatzaileak idatziz arrazoitu beharko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrean helburuak aldatzeko edo desbideratzeko eskaera, aipatutako inguruabarrak gertatzen diren unean, betiere 2021eko azaroaren 30a baino lehen.

Desbideratze edo helburu aldaketa hori deialdi honetan aplikatutako dirulaguntza irizpideen arabera onartu ahal izango da ebazpen baten bidez. Aurkeztu diren aldaketa eskaerak aztertuko dituzte teknikariek, eta Balioespen Batzordeak, txosten teknikoa oinarri, emandako dirulaguntzak aldatzeko proposamena egingo du. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileak ebatziko ditu aldaketa horiek.

**Hamalaugarrena. Ordaintzeko era**

• Emandako dirulaguntzaren ehuneko 75 aldeko ebazpena eman ondoko hogeita hamar egunetan ordainduko da.

• Gainerako ehuneko 25, berriz, aurkeztu beharreko justifikazio eta likidazioak aurkeztu ondoren ordainduko da.

Laguntzaren zenbatekoa 20.000,00 eurotik gorakoa bada, eta aurrerakina ehuneko 10 baino handiagoa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Idazkaritza Teknikoaren aldeko txostena beharko da.

**Hamabosgarrena. Frogagiriak**

15.1 Laguntzak jasotzen dituzten erakundeak, 2021eko abenduaren 15era arteko epean, behartuta daude laguntzaren egiaztagiriak aurkeztera:

15.2. Laguntzaren gastuen eta diru sarreren justifikazioak hemen aurkeztuko dira:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistro Orokorrean.

- Administrazio publikoen administrazio prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak jasotzen dituen gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, ondoko hauek eskaerak nahitaez telematikoki aurkeztu behar dituzte, egoitza elektronikoaren bidez eskura daitekeen berariazko izapidea eginda (https://egoitza.araba.eus/eu/-/pr-ayudas-dirigidas-a-asociaciones-o-fundaciones-para-contribuir-al-desarrollo-de-programas-y-actividades-enmarcadas-en-el-%C3%A1mbito-de-intervenci%C3%B3n-social), pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzen dutenak.

Justifikazioa elektronikoki aurkeztea nahitaezkoa izanik, aurrez aurre aurkezten bada edo horretarako prestatutako prozedura elektronikoa erabiltzen ez bada, egin beharreko zuzenketa egiteko eskatuko da, eta ohartaraziko zaio errekerimenduari hamar eguneko epean erantzuten ez bazaio kasuan kasuko izapidea egiteko daukan eskubidea galdu ahalko duela, horretarako ebazpena eman ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotakoaren arabera.

Dokumentazioarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eskaeretan jasotako informazioa eta dokumentazioa benetakoa dela adierazteko.

Justifikazio horretan, gutxienez dokumentazio hau erantsiko da:



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Txosten teknikoa, diruz lagundutako programa eta/edo jarduera bakoitzerako dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena. Datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira. Era berean, egiaztatu beharko dira genero berdintasunarekin eta euskararen erabilerarekin loturiko alderdiak, eskaeran aipatu direnak.

— Memoria ekonomikoa, dirulaguntzak justifikatzeko, agiri hauek eduki behar dituena:

• Aipatutako erakundearen legezko ordezkariak izenpetutako ziurtagiria, zeinetan jasoko baita diruz lagundutako programa eta/edo jarduera bakoitzean ebazpeneko "Justifikatzekoa Zerrenda horrek hauek jasoko ditu: hartzekodunaren eta agiriaren identifikatzailea, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa eguna, GOFEk emango dituen ereduekin bat etorriz.

• Aurreko ziurtagirian zerrendatutako fakturak. Ez da onartuko azaroaren 30a baino geroagoko data duen fakturarik.

• 300,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da. Ez da onartuko abenduaren 15 baino geroago egindako ordainketarik. Ordainketa justifikatzeko, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

— Enpresa hornitzaileak sinatutako hartze agiria, non agertu behar baitira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

— Banku laburpena.

— Laburpen elektronikoa edo transferentzia telematikoa, bankuaren zigiluarekin ordainketa ziurtatzen duena.

— Ordainagiria, enpresa jaulkitzailearen zigilu eta sinaduraduna, ordaindu zeneko data zehazten duena, edo erosketa tiket jatorrizkoa, hura eskuratuz zenbatekoa ordaindu dela adieraziko duena (saltoki motakoa).

— Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak eta bankuaren zigilua ageri dituena.

Aurreko hori gorabehera, Iruzurraren Kontra Borrokatzeko urriaren 29ko 7/2012 Legeak 7. artikuluan ezarritakoaren arabera (2012ko urriaren 30ean argitaratu zen BOEn), ez da onartuko eskudirutan egindako ordainketarik, indarrean den araudiak ezarritako zenbatekoa adinakoa edo handiagoa bada (ez eta horren atzerriko diruzko kontrabaliokorik).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

• Diruz lagundutako jardueran kanpoko profesionalen gastuak aintzat hartu badira, diruz lagundutako jarduerak iraun duen bitartean Ogasunari ordaindu zaizkion PFEZaren atxikipenen ordainagiria eta 190 eredua ere aurkeztuko dira, behar bezala zigilatuta. Jarduerak gauzatzen parte hartu duten profesionalen zerrenda jasoko da horietan.

• Diruz lagundutako jarduera erakundeko langileek gauzatzen badute, honako hauek aurkeztuko dira:

— Egotzitako langileen kostu xehatuei buruzko ziurtagiria, elkarteko legezko ordezkariak sinatuta. Horrez gain, profesionalei gastuak ordaindu zaizkiela eta dirulaguntza diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili dela agertu behar dira ziurtagirain, aipatutako jarduera zein ordutan eta zein egunetan gauzatu den jasota, GOFEk emandako ereduari jarraituz.

— Jarduera egin den aldiko hilei dagokien nominak.

— Ogasunari ordaindutako PFEZaren likidazioak (110 eredua) eta ordaindu izanaren egiaztagiria, jarduera egin zeneko aldiari dagokiona, eta azken laburpena (190 eredua), erakundearen soldatapeko langileen zerrenda jasotzen duena.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Gizarte Segurantzari eginiko likidazioak: kotizazioen likidazio ordainagiria (TC1) eta langileen izen zerrenda (TC2), jarduera gauzatu den aldiari dagozkionak.

• Erantzukizunpeko adierazpena (GOFEk emandako ereduetan jasoa); agiri horretan adierazi beharko da GOFEk emandako dirulaguntzari egotzitako gastuak justifikatzeko aurkeztu den dokumentazioa ez dela erabilia izan erakunde publikoek edo pribatuek emandako bestelako dirulaguntzak justifikatzeko eta, gainera, jasotako dirulaguntzen zenbateko osoak ez duela gainditzen erakunde onuradunak guztira egindako gastua. Halaber, adieraziko da ea erakunde horrek helburu berbererako laguntzarik jaso duen; halakoetan, erakundea, zenbatekoa eta xedea zehaztuko dira, bai eta administrazio publikoekin sinatutako kontratuen bidez jasotako sarrerak ere, betiere GOFEk emandako ereduari jarraituz.

— Diruz laguntzen den jarduerarako egindako egitarauen, argitalpenen, iragarki kartelen eta irudi eta idazki guztien ale bana, eta galdu egingo dute dirulaguntzarako eskubidea dokumentazio horretan Arabako Foru Aldundiaren laguntasuna sartu ez duten entitateek.

15.3. Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren araberakoa izan beharko da haien formatua. Elektronikoki sinatutako beste edozein dokumentu aurkeztuz gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuen konfiantza zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (http://sede.minetur.gob.es/Prestatzaileak).

15.4. Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen ordainagiririk ez fakturarik:

— Igorlea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANa edo IFZ.

— Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANa edo IFZ.

— Gastuaren xedea.

— Data.

— Faktura zenbakia.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia eta, batez ere, PFEZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko xedapenak betetzen ez dituzten fakturak.

Kilometro gastuak eta boluntarioek egindako beste gastuak justifikatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira GOFEk emango dituen ereduen arabera:

— Kilometroen orria edo gastu zerrenda.

— Likidazio ziurtagiria, zuzen izenpetua.

— Gastua egiaztatzen duten tiketak edo agiriak, halakorik bada.

15.5. Gizarte izaera duten erakunde edo establezimenduak emandako zerbitzuen zioz jasandako BEZ zergaren kuotak gastu justifikatu gisa hartuko dira aintzat, izaera horren aitorpena lortu duten gorabehera, betiere kasuan-kasuan aplikagarriak diren baldintzak betetzen badira (BEZ zergari buruzko Foru Arauaren 20.3 artikulua, arau horren 20.1 artikuluaren zortzigarren atalak ezarritako zergaren salbuespena aplikatzearen ondorioetarako).

15.6. Laugarren hiruhilekoaren 110. agiria, urteko laburpenaren 190. agiria eta azaroko TC1 eta TC2ak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 15era arte zabalduko da; ordaintzeko ezinbesteko baldintza izango da Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak bete izana.

GOFEk ofizioz eskatuko du Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela ziurtatzen duen agiria, eta, entitate eskatzaileak adierazi badu ez dagoela ados GOFEk dokumentazio hori eskatzearekin, berak aurkeztu beharko du dokumentazio hori.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

15.7. Justifikatzeko epea amaituta, erakunde onuradunak ez baditu agiri guztiak aurkeztu, 10 egun baliodun gehiago emango zaizkio aurkez ditzan. Epe hori amaitu eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, ordainketa kredituak baliogabetuko dira, eta dagokion espedientea hasiko da "konturako entrega" kontzeptuan jasotako zenbatekoak itzul daitezen.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eman diren dirulaguntzak zertarako eta nola erabili diren egiaztatu ahal izango du, egoki irizten dion moduan, eta diruz lagundutako zerbitzu edo jardueren ezaugarriak, eraginkortasuna eta kalitatea neurtu ahal izango ditu.

Justifikatutako zenbatekoa ebazpenean adierazitakoaren arabera justifikatu beharreko zenbatekoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza dagokion proportzioan murriztuko da, esleipenean ezarritako baldintzen arabera.

**Hamaseigarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak**

16.1. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek betebehar hauek dituzte, deialdi honetan, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren erakunde autonomoa den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) norgehiagoka bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei aplikagarri zaien araudian jasotakoez gainera:

• Dirulaguntza jasotzeko oinarritzat hartu zen jarduera egitea.

• Dirulaguntza eman duen erakundeari edo, hala badagokio, erakunde laguntzaileari, jarduera horiek egin direla egiaztatzea, bai eta dirulaguntza emateko edo dirulaguntza jasotzeko baldintzak edo betebeharrak betetzen direla ere.

• Dirulaguntza eman duen erakundearen egiaztapen jarduerak onartzea, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kontrol ekonomiko eta finantzariorako eta kudeaketarako egiten dituenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legerian eta beste erakunde eskudunen legerian xedatutako bestelako jarduerak ere.

• Edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk, Espainiakoak nahiz nazioartekoak, xede berarekin emandako dirulaguntzen edo laguntzen berri ematea erakunde emaileari, edo, hala dagokionean, erakunde laguntzaileari. Orobat, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, horren berri ematea erakunde emaileari.

• Diruz lagundutako jarduerak zabaldu, kaleratu edo argitaratzen direnean, espresuki adieraztea jarduera horiek Arabako Foru Aldundiaren babesarekin egin direla. Argitalpen horiek bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira.

• Hizkera ez-sexista erabiltzea jaulkitako agiri guztietan, aurkezpenetan, ahozko komunikazioan eta komunikazio sinbolikoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez. Aipatutako Legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da aniztasuna sexuetan, roletan eta genero identitateetan.

16.2. Ezarritako betebehar horietako edozein nahiz indarrean dagoen legerian ezarrita daudenak ez betetzeak, aitortutako dirulaguntza iraungitzea ekarriko du, eta ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli behar izatea.

16.3. Emandako dirulaguntzen ordainketa agindua eten egingo da, eta hala badagokio, ordaindutako dirulaguntzak itzuli beharko dira datu faltsuak eman edo datuak ezkutatuz gero, eta dirua dirulaguntzen esleipen erabakian jasotako helburuetarako ez diren beste helburu batzuetarako erabiliz gero, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan adierazitako kasuekin aldiberekotasuna gertatuz gero ere. Gainera, arrazoi horiengatik eska daitezkeen erantzukizunak ere bete beharko dira.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**Hamazazpigarrena. Dirulaguntzen konkurrentzia eta bateragarritasuna**

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, Espainiakoa nahiz nazioartekoa dela, helburu bererako emandako beste edozein laguntza ekonomiko edo dirulaguntzarekin, baldin eta haien zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntzekin batera, ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua eta ez badakar diruz lagundutako jarduera estaltzeko eskatutako finantzaketa murrizterik, halakorik eskatuta egonez gero.

**Hemezortzigarrena. Azken klausula**

Deialdi honetako oinarriak honako arau hauek ezartzen dutenaren menpean egongo dira erabat: lehenik, Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren erakunde autonomoa den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez ematen dituzten dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak; bigarrenik, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, eta azkenik, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 2a

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria*
*EMILIO SOLA BALLOJERA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ORRIALDEA:1 / 3

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ifbs/

A

A.00

# I. ERANSKINA – INPRIMAKIA

**ELKARTEentzako** laguntzak Gizarte Zerbitzuen eremuko **PROGRAMA.**
**ETA JARDUERAK** garatzen laguntzeko:

______ jauna/andrea NAN ______
______ erakundeko ordezkaritzak,

**Ziurtatzen du**

1º BEZ-A ORDAINTZETIK SALBUETSITA EGOTEARI EDO EZ EGOTEARI DAGOKIONEZ (markatu dagokiona) Ordezkatzen

☐ dudan erakundeak ez dauka irabazteko asmorik, eta inoiz mozkinik lortuz gero, mozkinok irabazteko asmorik gabeko jarduerak egiteko erabiltzen ditu.

☐ Lehendakari, patroi edo ordezkari kargua doakoa da; beraz, ez da ordaintzen.

☐ Erakundeak BEZa ordaintzetik salbuetsita egotearen Zerga Agentziaren ziurtagiria dauka.

2º BERDINTASUNAREN ARLOKO ARAUDIA BETETZEARI DAGOKIONEZ:

- Erakunde eskatzaileak ez du zuzeneko eta/edo zeharkako sexuaren ziozko diskriminazio ekintzarik egiten onarpen prozesuetan zein funtzionamenduan, Osasunaren Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasunaren Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Erakunde eskatzaileak ez du zigor eta/edo administrazio zehapenik izan sexuaren ziozko diskriminazioagatik eta/edo abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretutik, Lan arloko arau hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duenetik, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerakoaren, hamalaugarren xedapen gehigarritik eratorritako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau hausteengatik.

3º BENEKOTASUNA

- Adierazten dut eskabide honetan jasotako informazio eta dokumentazio guztia benetakoa dela, erakundearen esku dauden jatorrizkoekin bat datorrela, eta horiek aurkezteko konpromisoa hartzen dudala hala eskatzen denean.

## ERAKUNDEAREN IDENTIFIKAZIOA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ): | | Entitatea legez eratu den data: | |
| **Eusko Jaurlaritzako Erregistroko z.k.** | | **G. Politiken Saileko Erregistroko z.k.** | |

## HELBIDEA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Kalea / Pasealekua / Plaza | | Herria | | | |
| Udalerria | | Posta k. | | Telefonoa | |
| Faxa | | E-maila | | Web Orria | |

ORRIALDEA: 2 / 3

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ifbs/

A

A.00

# I. ERANSKINA - INPRIMAKIA

## OSAERA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Zuzendaritza Batzordearen/ Patronatuaren kide kopurua | gizonak | | emakumeak | | | |
| Bazkide kopurua | gizonak | | emakumeak | | Urteko kuota | |
| Urtean boluntario pertsonak | gizonak | | emakumeak | | | |
| Urtean soldatako pertzonak | gizonak | | emakumeak | | | |
| Urtean artatutako pertsonak | gizonak | | emakumeak | | | |

## HARREMANETARAKO PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

Izen-deiturak

Erakundean duen kargua                Teléfonoa

E-maila

## XEDE BERDINERAKO BIDERATUTAKO BESTE DIRU SARRERA EDO DIRULAGUNTZA BATZUK

Erakundea:

Kontzeptua:                Eskatua: €                Emandakoa: €

Erakundea:

Kontzeptua:                Eskatua: €                Emandakoa: €

Erakundea:

Kontzeptua:                Eskatua: €                Emandakoa: €

(e)n

20 (e)ko aren (e)(a)n

(ordezkaritzaren sinadura)

ORRIALDEA:3/3

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ifbs/

A

A.00

# I. ERANSKINA- INPRIMAKIA

**BAIMEN ESKAERA, JARDUERAK EDO EROSKETAK LOTUTAKO PERTSONEKIN EDO ERAKUNDEEKIN AZPIKONTRATATZEKO**

*SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN PARA LA SUBCONTRATACIÓN DE ACTIVIDADES O ADQUISICIONES CON PERSONAS O ENTIDADES VINCULADAS*

**Erakunde eskatzailaren izena** - *Nombre de la entidad solicitante* **IFZ** - *CIF*

**Adierazpen egilearen izen-abizenak –** *Nombre y apellidos de la persona declarante*

**Erakundean duen ardura –** *En calidad de:* **NAN** - *DNI*

**ESKATZEN DIO, dirulaguntzen deialdi publikoaren 4.5 oinarriak, eta 11/2016 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenaren, 27.7.d) artikuluan xedatutakoa aplikatuz dirulaguntza emateko eskumena duen organoari, azpikontratazioa egiteko baimena ematea, lotutako pertsona/entitate honekin**:

*SOLICITA al órgano competente para la concesión de la subvención, en aplicación de la Base 4.5. de la Convocatoria pública de ayudas, y del artículo 27.7.d) de la Norma Foral 11/2016 de Subvenciones del Territorio Histórico de Álava, autorice la subcontratación con la persona/entidad vinculada cuyos datos a continuación se relacionan:*

**Izen-abizenak edo sozietatearen izena –** *Nombre y apellidos o Razón social* **IFZ/IFK** - *NIF / CIF*

**LOTURA MOTA** - *TIPO DE VINCULACIÓN*

**Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren, 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra onartzen duenaren, 68.2 artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz** - *Existente de conformidad con el art. 68.2 del RD 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la ley 38/2003 General de Subvenciones*

**Azpikontratazioaren deskripzioa** - *Descripción de la subcontratación*

**Azpikontratazioa egiteko baimen eskaera egiten da, zenbateko hau eskuratzeko** - *Importe para el que se solicita autorización de subcontratación*

**Azpikontratatutako jardueraren ZENBATEKOA, GUZTIRA –** *IMPORTE TOTAL de la actividad subcontratada*

**Era berean, HITZEMATEN DU azpikontratazioa merkatuaren baldintza arrunten arabera egingo duela.** - *Asimismo, SE COMPROMETE a que la subcontratación se realice de acuerdo con las condiciones normales del mercado.*

| ***Tokia eta data*** - *Lugar y fecha* | **Ordezkariaren sinadura** - *Firma del / la Representante* |
|---|---|
| | |

ORRIALDEA: 1 / 7

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ifbs/

A

A.00

# Memoria Teknikoa

## JARDUERAK PROGRAMATZEA

## (orri bat bete behar da, eskaeraren xede den jarduera bakoitzeko)

**Azalpenak idazteko leku gehiago behar baduzu:** memoria teknikoaren buk aeran bi agiri zuri daude, atalen zehaztasun gehiago idazteko.

### 1. JARDUERAREN IZENA

### 2. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN KONTZEPTU BAKOITZERAKO AURREKONTUA ETA ESKATUTAKO ZENBATEKOA, DEIALDIAREN OINARRIETAN EZARRITAKOAREN ARABERA

1) "Zeharkako gastuak" jarduerako ez dago memoria hau bete beharrik.
2) Zabalkunde gastuen kontzeptuak jarduera bereizi gisa eskatu behar dira.

| Kontzeptua | Aurrekontua | Eskatutako kopurua |
|---|---|---|
| | € | € |
| | € | € |
| | € | € |
| | € | € |
| | € | € |
| GUZTIRA: | 0,00 € | 0,00 € |

### 3. JARDUERAREN EGOKITASUNA ETA KALITATE TEKNIKOA

**a.1. Jarduneraren azalpena, eta elkarteak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jardueren xede diren gizarte beharrei egiten dien ekarpenaren justifikazioa (30 puntu gehienez)**



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ORRIALDEA: 2 / 7

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ifbs/

# A

A.00

# Memoria Teknikoa

**JARDUERAREN IZENA**

**a.2. Jardueraren xedeak, ekintzak, metodologia eta kuantifikazioa (20 puntu gehienez)**

**XEDEAK (5 puntu):**

**EKINTZAK (5 puntu):**

**METODOLOGIA (5 puntu):**

**KUANTIFIKAZIOA ETA AURREKONTUA (5 puntu):**

**JARDUERAREN GASTU ETA DIRU SARRERA GUZTIEN AURREKONTU XEHAKATUA**

| Gastuaren kontzeptua | Zenbatekoa | Diru-sarrerak | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| GUZTIRA | 0,00 € | GUZTIRA | 0,00 € |

OHARRA: Gastuen guztirakoak eta diru sarreren guztirakoak zenbateko berdina izan behar dute.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ORRIALDEA: 3 / 7

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ifbs/

A

A.00

# Memoria Teknikoa

## JARDUERAREN IZENA

## KUANTIFIKAZIOA ETA AURREKONTUA (jarraipena):

**Jarduerarен erabiltzaileak edo onuradunak** Gizonak: ___ Emakumeak: ___ GUZTIRA: 0,00

**Jarduera egiteko aurreikusitako orduak**

| Ekintza | Orduak guztira |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| GUZTIRA | 0,00 |

**Jarduera gauzatzeko aurreikusitako eta eskatutako kilometroak**

| Abiapuntua | Lanlekua | Km-ak (joan-etorria) | Bidaia kopurua | Km-en guztizko partziala |
|---|---|---|---|---|
| | | | | 0,00 |
| | | | | 0,00 |
| | | | | 0,00 |
| | | | | 0,00 |
| | | | | 0,00 |
| | | | | 0,00 |
| | | | GUZTIRA | 0,00 |

OHARRAK: Kilometroak egoitza dagoen herrian, soilik diruz lagunduko zaie langile boluntarioei.
Gainerakoak, gehienez diruz lagunduko diren kilometroak: Araban dagoen egoitzatik gauzatzen den lekuraino.

## a.3. Segimendu-prozesua eta aurrez ikusitako ebaluazio-adierazleak (gehienez, 5 puntu)

ORRIALDEA: 4 / 7

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ifbs/

A

A.00

# Memoria Teknikoa

## JARDUERAREN IZENA

## a.4. Materialak, giza eta teknologia baliabideak (gehienez ere 5 puntu)

**Jarduerarako behar diren material suntsikorren xehetasuna eta kuantifikazioa:**
(Diruz laguntzeko eta ondoren justifikatzeko modukoak izango dira jarduera bera gauzatzen kontsumitzen direnak bakarrik, eta zehaztu egin behar dira espresuki atal honetan)

| Behar diren materialak | Kopurua/zk. | Zenbatekoa, guztira | Eskatutako zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

OHARRA: Hedapenerako materialak jarduera bereizi gisa eskatu behar dira

Jarduera egiteko aurkeztutako giza eta teknologia baliabideak:

## d) GENERO IKUSPEGIA ETA BERDINTASUNAREN SUSTAPENA JASOTZEA (gehienez, 5 puntu)

Deialdiaren 8.d. oinarrian jasotako 5 baldintzetatik, azaldu zeintzuk eta nola beteko diren jarduera hau garatzean

## e) EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA ETA HAREN ERABILERA ESPARRUAK ZABALTZEA (gehienez, 5 puntu)

Markatu dagokiona, zeintzuk eta/edo nola zehaztuta:

☐ Euskara erabiltzen da komunikazio bidalietan

☐ Euskara erabiltzen da aurkezpenetan

☐ Euskara erabiltzen da inprimatutako beste material batzuetan

OHARRA: d) eta e) ataletan adierazitakoa bete dela frogatu egin beharko da ondoren dagokion justifikazioan.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ORRIALDEA: 5 / 7

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ifbs/

# A

A.00

# Memoria Teknikoa

**AURREKONTUA, ERAKUNDEAREN LANGILEEK ESKAERAREN XEDE DIREN JARDUERETAN PARTE HARTZEARI BURUZKOA (orri bat bete behar da, horrelako egoeretan eskaeraren xede den pertsona bakoitzeko)**

**ESKAERAREN XEDE DEN JARDUERAREN IZENA**

____________________

**1. LANGILEEN AZALPENA, ETA JARDUERA EGIN, EMAN EDO KOORDINATZEKO DEDIKAZIOA**

JARDUERARI LOTUTAKO LANGILE PROPIOAK (URTEKO KUANTIFIKAZIOA):

Izena __________

Lanpostua __________ Orduak urtean _____ Oinarrizko soldata _____

Osagarriak _____ Antzinatasuna _____ Enpresaren Gizarte Segurantza _____

**Gastua, guztira** 0,00 €

• Jarduera zuzenean gauzatzen emandako ordu kopurua _____

• Zeharkako lana egiten emandako ordu kopurua; halaber, adierazi behar da zertan ematen diren ordu horiek, esate baterako, joan-etorrietan, koordinatzen, gai zerrenda edo memoria egiten, eta abarretan. (1. Oharra)

Ordu kop.: _____ Kontzeptua: __________

Ordu kop.: _____ Kontzeptua: __________

**2. KOSTUA, ERAKUNDEAREN LANGILEEK ESKAERAREN XEDE DEN JARDUERAN PARTE HARTZEAK DAKARRENA**

| | |
|---|---|
| A. Langileen urteko kostua (soldatak + enpresari dagokion G. Segurantza): | € |
| B. Langileen urteko lanorduen kopurua, guztira | |
| C. Langileen lanordu bakoitzaren kostua (A / B) | € |
| D. Jarduera horri egotzitako ordu kopurua, guztira: | |
| E. Langileen kostu osoa (C x D): | 0,00 € |

(1. Oharra). Zeharkako lanari dagokionez, gehienez diruz lagundu daitezkeen orduak honako hauek dira:
• zuzeneko laneko orduez gain, denboraren % 100 diruz lagundu daiteke gehienez, 3 ordu baino gutxiagoko programa edo jardueretan.
• zuzeneko laneko orduez gain, denboraren % 75 diruz lagundu daiteke gehienez, 10 ordura arteko jardueretan.
• zuzeneko laneko orduez gain, denboraren % 50 diruz lagundu daiteke gehienez, 30 ordura arteko jardueretan.
• zuzeneko laneko orduez gain, denboraren % 25 diruz lagundu daiteke gehienez, 30 ordu baino gehiagoko jardueretan.

ORRIALDEA: 6 /7



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ORRIALDEA: 7 /7



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2021.06.11 23:00:33 Z